



«JAUTARKOL», gure oleskari ospetsuak idatzitako bertso bateri Itz-aurrea.

• • •

Berriro, «OARSO», gure errebistak, gogo onez jasotzen du JAUREGI'tar KOLDOBIKA'ren lan bat. Bere atzen denboretako olerkia degu, —gure ustez 1964'goa—. Ain goxoa, ain xamurra...

Ezin alde batera utzi. Gure «OARSOK'» ezin baidu aztu bere alde ainbeste lan egin zuan lagun ospetsua.

## AINGERUTXOAK

*Esan, amatxo: zer da aingerua?  
Nun daude aingerutxoak?...  
Galdetzen dio alargunari  
Besotan daukan aurtxoak.*

*Malko gozoaz estali dira  
Amaren begi urdiñak,  
Bere biotzan esnatu dira  
Oroipen maite-samiñak.*

*Besarkatzen du bere aurtxoa  
Estu-estu biotzean,  
T'erantzun dio musu bero bat  
Luzaro eman-ostean.*

*Aingerutxoa zer dan diozu?  
Enetxu, ori galdera!  
Aingerutxoa, ene kutuna,  
aingerutxoa... zu zera.*

Jauregi'tar Koldobika.